

# 5 PARTITIBOA ([R]IK)

1 Bete hutsuneak partitiboa erabiliz.

01. Baduzue (ogi) .....**RIK**..... ?

02. Ez daukagu ez (ogi) ..... , ez (ardo) .....

03. Ez dago hau baino diamante handiago.....

04. Hauxe da, beraz, diamante..... handiena.

05. Baduzu esperantza..... ?

06. Ez daukat diru..... Zuk badaukazu diru .....?

07. Ekarri didazu zor didazun diru ..... ?

08. Ez zahar..... ez gazte..... inor ez  
zaigu agertu hemen.

09. Nik neuk behintzat ez dut ikusi horrelako..... inoiz ere.

10. Hemen ez da agertu liburu..... . Ezta koaderno.....  
ere.

11. Egin ezazu baina tontakeria..... egin gabe, e!

12. Bota duzu egur..... sutara?

13. Nor da Gasteizko mozkor..... handiena?

14. Ez da munduan gizon....., errege....., ez

printze..... ni baino hobea den.....

15. Ea elkar ikusteko aukera..... badugun!

16. Agur Zuberoa, bazter guztietako txoko..... ederrena

17. Zurekin ditut amets..... goxoenak

18. Ez da Herri..... zu bezalako.....

19. Ez dugu zaldi..... ez gara zaldunak

20. Ez dugu abere..... , ez gara aberatsak

21. Baduzu ozpin..... ? Ez daukagu ez

ozpin....., ez olio.....

22. Hemen ez dago gorpu.....

23. Zein da liburu..... interesgarriena?

24. Mikel hori berezia da; ez dut inoiz hura bezalako..... ikusi.

25. Manifestazio..... ba ote dago?

26. Noiz itzuliko didazu zor didazun diru..... ?

27. Ba ote dago arrain..... gabeko itsaso .....?

28. Ez dut horrelako nahaste..... ikusi nahi.

29. Ez dago eskubide..... !

2. Aukeratu partitiboa erabili behar den esaldia eta jarri partitiboaren atzizkia beharrezkoa denean.

30. Hauxe duzu mutil txikiena.

31. Badute eskopeta? **ESKOPETARIK**

32. Ez dizkit ekarri utzi nizkion liburuak.

33. Borondatea balu ez luke ezetza esango.

34. Euskaraz egiteko ez da lotsa behar.

35. Astea eta urte onenak, txerria hiltzeko astea eta ezkontzeko urtea.

36. Ez daukat joateko asmoa.

37. Liburutegiko liburu zaharrenaren egilea aspaldi hil zen.

38. Saguak ikusten badituzu abisa iezadazu.

39. Ez dute ez pistola ez arma ekarri.